


# Ezpalak

JON TORNER

## 2008ko bertsoarik onenak plazaratu ditu Bertsoa.com-ek



BERTSOA.COM webgunean ehundik gora saio sareratu ditu aurtur Jexux Mari Irazuk. Grabaketa horietatik 40 bertsoaldi aukeratu eta *Bertsoak 2008* DVD bikoitzean bildu dituzte Bertsoa.com-ek eta Lanku enpresak. 210 bertso jaso dituzte orotara. Aurrera begira, urtero DVD bat plazaratzeko asmoa agertu dute. Aurtengoa Bizkaiko Bertsolari Txapelketan, Durangoko Azokan eta [www.lanku.com](http://www.lanku.com) webgunean eskura daiteke, 10 euroren truke.

## Euskal diasporaren atari berria

EUSKAL DIASPORARI buruzko atari berria sortu dute Uruguai, Argentina, Ipar Amerika, Venezuela eta Espainiako euskal etxeen federazioek: [www.euskaletxeak.net](http://www.euskaletxeak.net). Euskal etxeen arteko harremanak sendotzeaz gain, Eusko Jaurlaritzarekin administrazio tramiteak egiteko aukera emango du. Atariak software librea du oinarritzat. Erbesteko argazki, dokumentu eta testigantzak bildu dituzte, besteak beste.

## Buber sarien 6. edizioa abian da

EUSKAL HERRIKO enpresa eta norbanakoen webguneak aurkez daitezke Buber Sarien 6. ediziora (<http://buber.internetuskadi.org/web>). Zortzi maila daude guztira, eta horietako bakoitzean zein webgune gustuko duten adieraziko dute Internautek. Beraiek erabakiko dute finalera zeintzuk pasako diren, eta irabazleak epaimahai batek hautatuko ditu. Webguneak aurkezteko epea abenduaren 3an amaituko da.

'**Kutxidazu bidea, Ixabel**' filmak jaso du pelikula onenaren saria Hizkuntza Minorizatuen Zinemaldi Europarraren II. Jaialdian. Husum hirian (Alemania) egin da jaialdia.

**Mikel Sotok** hemezortzi idazleren ipuinak bildu ditu *Haginetako mina* liburuan (Txalaparta). Euskal Herriko gatazkari hainbat ikuspuntutik heldu diote Anjel Lertxundi, Mikel Albisu, Edorta Jimenez, Inazio Mujika Iraola, Patxi Zubizarreta, Pablo Sastre, Luis Fernandez, Jose Luis Otamendi, Xabier Montoia, Jokin Muñoz, Lander Garro, Eider Rodriguez, Xabier Mendiguren, Iban Zaldua, Jon Alonso, Harkaitz Cano, Karmele Jaio eta Joseba Sarrionandiak.

**Keu Agirretxea** gitarra bakarkako lehenengo diskoa plazaratu du: *Une akustikoak* (Gaztelupeko Hotsak). Zizurkilen aurkeztuko du zuzenean, hilaren 28an.

• **Cesar Antonio Molina Espainiako Kultura ministroak *Público* egunkarian:** «Euren produktuek doan banatu nahi dituztenen aurka ez daukat ezer. Baina kontutan izan behar da software zein kultur produktuen garapenak sorkuntza, ekoizpen eta banaketa gastuak dituela. Horretan dabiltzanek bizimodua ateratzeko gainontzekook adina esku-bide dute (...) P2P-a legala da, eta aplikazio ugari dituen tresna oso erabilgarria. Baina ez da onargarria babestutako produktuak legez kontra eta masiboki jaistea, kultur industria kaltetu eta lanpostuak deuseztatzen direlako».

• **Iñaki Mendizabal idazleak *Deian*:** «Inoiz baino gehiago irakurtzen da, hori bai, derrigorrez, ikastetxeetan. Lortu behar dena da gazteak liluratzea, liburu erakargarriak eginez, irakasle trebatu eta zaletuen bitartez, programa bereziak bultzatuz...».



# Abarrak

MIKEL ASURMENDI

## Fundamentalismoak eta gezurrak bizi gaituzte

*Body of lies*. Zuzendaria: Ridley Scott.

Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Russell Crowe, Mark Strong, G. Farahani, Oscar Isaac. AEB. 128 minutu.

IRAILAREN 11ko atentatuek mundua aldatu zuten. XX. mendeko erdialdean jaiotakoek irudimenean eraiki genuen “2000. urtea” ez da fikzioa jada. Teknlogiek fantastikoa bezain lazgarria bihurtu dute mundua. Zinema gertakari nahiz baliabide berriez hornitzen da.

*Body of lies* filmaren funtsa Mendebalde aurreratutako eta Ekialde Ertaineko zibilizazioen talka da. Lurtrorok –AEBetakoak, noski– aspaldi iritsi ginen ilargira. Ez genituen alferrik sateliteak eta bideokamerak espazioan eskegi, mundua kontrolatzeko.

Gerraren testuingurua eta geopolitika aldatu dira arras. Gerraren oinarria zimendatzen dugun jendartera XXI. mendeko kultura fantastiko sofistikatuaz “elikatzen” garen bitartean, Erdi Aroko sinestetatik “edaten” segitzen dute beste aldeko osteek. Zibilizazioen arteko aldeak eta tupustarriak izugarriak dira.

Historia luzea mundutarrona. Milaka gerrari ekin diegu. Gerra protagonistak eta jokamoldeak berak dira haatik. Espioiak eta gezurrak behar ditu gerrak. Espioia eta gezurtia hitz sinonimoak dira gerratean.

Ridley Scott-en filmeko protagonistek osatzen dituzten sareak gezurrez bilbatzen dira. Gezurrak iraupen laburra du ordea. Gezurrean bilbatutako sarea osatu orduko desegiten da. Alabaina, gerrak iraunen badu sarea berrosatzen segitu beharra dago.

Aretotik atera eta Barack Obamarekin gogoratu nintzen, baita demokraziaren fundamentalista George Bush gezurtiarekin ere: “AEBetako presidente berriak zaila du gero gezurrean eraikitako gerra-amarauna desmuntatzea”. Fundamentalismoak bizi gaituela pentsatu nuen. Pentsa, Mayor Orejak –jo dezagun hemen bera dela Bush– ETak sekula santan gezurrik esaten ez duela sinetsarazi digunerako!



azaroaren 30ean  
**Markina-Xemein**  
 Frontoian, 17:30ean

**bota**  
 Bizkaiko bertsolari txapelketa 2008

Onintza Enbeita  
 Arkaitz Estiballes  
 Eneko Abasolo  
 Miren Amuriza  
 Joseba Artza  
 Jabier Olibares

Gaijartzaleak:  
 Leire Bilbao

[www.botasarean.biz](http://www.botasarean.biz)

argia